BESTELAKO XEDAPENAK

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4795

1463/2011 EBAZPENA, abuztuaren 3koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena Osakidetzako Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzea baitu, toki-erakundeetarako laguntzak esleitzen dituena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua ente publikoaren Administrazio Kontseiluak 2011ko martxoaren 10ean hartutako Erabakiaren bidez, 2011. urtean toki-erakundeei laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia onartu ziren.

Hartarako izendatutako Batzordeak aurkeztu diren eskabideak aztertu eta gero, laguntzak esleitzeko proposamena egin zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, ebazpena eman dezan.

Beraz, deialdiaren 7. oinarrian ezarritakoa betez, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluak emandako eskuordetzeaz baliatuz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Dagozkien diru-laguntzak ematea honako toki-erakunde hauei. Bakoitzari, aipatzen diren kontzeptuengatik, adierazitako zenbatekoa emango zaio. Laguntzak ematea eta ordaintzea Batzordeak deialdian ezarritako baldintzen menpe egongo da.

ARABA			
Eskualdea	Udala Administrazio Batzarra	Kontzeptua	Laguntza
Araba	Arraia-Maeztu	Mediku-kontsultategia mantentzeko konponketa-lanak (Herrería kalea 9, Maeztu)	8.916,77
Araba	Asparrena	Mediku-kontsultategia eraberritzea (Santsaerreka kalea 7, Araia)	4.909,85
Araba	Lantarón	Salcedoko mediku-kontsultategia mantentzeko konponketa-lanak (Komunioi)	6.832,54
Araba	Otxandio	Mediku-kontsultategia eraikitzeko proiektua idaztea (Elixoste 11, behea)	41.300,00
Araba	Bergondako Administrazio Batzarra	Mediku-kontsultategiaren teilatua berritzea (San Juan kalea 7, Bergonda)	11.962,17
		Guztira	73.921,33

BIZKAIA			
Eskualdea	Udala	Kontzeptua	Laguntza
Ezkerraldea-Enkarterri	Gordexola	Mediku-kontsultategia konpontzeko lanak (Jose Antonio Garay plaza, 4)	11.793,00
Barrualdea	Abadiño	Mediku-kontsultategia eraberritzea eta handitzea (Trañabarren, 13-5)	215.623,90
Barrualdea	Areatza	Mediku-kontsultategia konpontzeko eta mantentzeko lanak (Gudarien plaza 7)	4.779,53
Barrualdea	Atxondo	Mediku-kontsultategi berria eraikitzeko lanak (Foruen plaza, 2)	38.302,10
Barrualdea	Dima	Mediku-kontsultategiaren fatxada konpontzeko lanak (Telleri kalea 25, behea).	4.520,88
Barrualdea	Morga	Osasun Zentroa eraberritzeko eta handitzeko lanak (Agirre Lehendakariaren plaza, Andra Mari auzoa)	22.380,06
Barrualdea	Okondo	Mediku-kontsultategi berriko lanak eta altzariak (Zudibiarte kalea, 2)	200.000,00
Uribe	Gatika	Mediku-kontsultategia mantentzeko konponketa-lanak (Sertutxa auzoa, 4)	4.326,35
Uribe	Zamudio	Mediku-kontsultategiko aparkalekua egokitzea (irisgarritasuna) (Abarkoetxe bidea, 11)	9.318,17
		Guztira	511.043,99

GIPUZKOA			
Eskualdea	Udala	Kontzeptua	Laguntza
Gipuzkoa Mendebaldea	Aramaio	Mediku-kontsultategia mantentzeko lanak (pintura) (Nardeaga kalea 30, Ibarra)	3.612,28
Gipuzkoa Mendebaldea	Idiazabal	Mediku-kontsultategiaren fatxada konpontzeko lanak (Kale Nagusia, 10)	11.422,40
		Guztira	15.034,68

Laguntzen zenbatekoa, guztira: 600.000 euro.

Aipatutako laguntza jasotzeko, toki-erakunde bakoitzak onartu egin beharko ditu laguntzok, baita deialdian adierazitako gainerako eskakizun guztiak ere.

Diru-laguntza Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak ordainduko du transferentzia bidez; horretarako, onuradunak diru-laguntza ematean helburu zena bete dela egiaztatu beharko du jatorrizko agiriaren bidez, kasu bakoitzaren arabera: proiektua idazteagatiko ordainsariak, obra-ziurtagiriak –arkitekto zuzendariak baloratu eta sinatutakoak– edo altzariak eskuratu direla egiaztatzen duten fakturak –aurrekontua aurrez onartuko da–, baita ordainketa onartzen duen osoko bilkuraren zein gobernu-batzordearen erabakia edo alkatetzaren dekretua ere.

Ordainketa egiteko agiriak aurkezteko azken eguna 2012ko abenduaren 31 izango da, eta obrak legez ezarritako prozedurak erabiliz burutuko dira.

Bigarrena.– Berriatuko Udalari, mediku-kontsultategi berria eraiki dezan, 8.853,69 euro izendatzea, deuseztatu egin baita Aiarako eta Artziniegako udalen espedienteetatik soberan geratutako zenbatekoa.

Abadiñoko Udalari, mediku-kontsultategia eraberritu eta handitu dezan, 84.850 euro izendatzea, Orozko Udalak uko egin baitio eman zaion diru-laguntzari.

Hirugarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Diru-laguntza jasoko duten toki-korporazioei, dagokien onarpen-agiria bidaltzea; agiri hori behar bezala beteta itzuli beharko dute, jakinarazpena egiten denetik hasi eta 15 eguneko epean.

Behin betiko ebazpen honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena EHAAn argitaratzen den egunetik aurrera, hilabeteko epean, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako idazkeran). Horretaz gain, administrazioarekiko auzien bideari ere ekin ahal izango diote zuzenean, dagokion administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztuta.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abuztuaren 3a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.